



DBH 2

ZENBAT LUR BEHAR DU GIZON BATEK?



AUTOREA: Lev Tolstói

IZENBURUA: Zenbat lur behar ditu gizon batek?

ILUSTRATZAILEA: Elena Odriozola

ITZULTZAILEA: Mikel Vilches

ARGITALTOKIA, ARGITALETXEA, URTEA: Berriozar, Denonartean, 2011

ORRIALDE KOPURUA: 66

BILDUMA:

ISBN: 978-84-96634-75-6

ADIN TARTEA 12 urtetik aurrera

IRUZKINA

Narrazio labur honek gure gizartearen parabola zorrotza eraikitzen du tonu umoretsu, sinple eta guztiz pedagogikoan. Literatura unibertsalaren maisulanetako bat bezala goraiatua izan da, bestek beste James Joyce-ren neurrikoengatik.

Bertan Pahom deritzon nekazariaren bizipenak kontatzen zaizkigu. Pahom ed dago konforme dituen lurrekin eta bere bizia aldatuko duen erronka botatzen du: "Gure pena bakarra da lur gutxi dugula! Nahi adina izango banu, ez nintzateke inoren beldur



izango, ezta deabruarena ere!” Berak ez daki baina deabruak dena entzun du. Hortik aurrera Pahom handik eta hemendik lur gehiago lortzeko erronka zoroan sartzen da, aseezin, harik eta Bashkir deitzen den herriaren berri duen arte. Kontatzen diotenez Bashkir-tarrak jende inozoa dira, sinplea, eta tratu berezia egiten omen dute euren lurren truke: egun batean ibili daitezkeen lurren truke ehun txanpon baino ez omen dituzte eskatzen, baldintza bakarrarekin, abiatutako leku berera itzuli behar da eguzkia sartu aurretik.

IKASLEEKIN LANDU DAITEZKEEN GAI PEDAGOGIKOAK

- Lev Tolstoiren bizitza. Gizon bakezalea zen, XX mendeko bakezale guztien aitzindari teoriko eta praktikoa, bere bizimoduarekin erakutsi zuenez.
 - Bere teoria politiko eta sozialak gainbegiratu eta euren gaineko eztabaida saioak antola daitezke.
 - Bere teoriak hausnartu eta onartzen diren horiekin aldarrikapen sozialak egin litezke.
- Lev Tolstoiren bizitza. Gizon begetarianoa zen, XX mendeko begetariano guztien aitzindari teoriko eta praktikoa, bere bizimoduarekin erakutsi zuenez.
 - Bere elikadurari eta etikari buruzko teoriak gainbegiratu eta euren gaineko eztabaida saioak antola daitezke.
 - Bere teoriak hausnartu eta onartzen diren horiekin aldarrikapen sozialak egin litezke.
- Lev Tolstoiren obra. Euskaraz ditugun obren artean arakatu, “Zenbat lur...” obraren pertsonaiak edota gaiak konparatzeko asmoarekin. Euskaratuta dauden lau obren artean gazteek irakurtzeko egokienak hauek dira:
 - Zaldi baten historia / [itzultzailea, J. L. Eguireun ; marrazkiak, Ángel Domínguez].-- Bilbo, Mensajero, 1998
 - [Alegiak](#) / itzulpena Bittor Madina.-- Donostia, Baroja, 1985
- Lev Tolstoiren obra. Gaztelaniaz (frantsesez edota ingelesez ere izan liteke) dauden obren artean arakatu eta zenbait irakurri, “Zenbat lur...” obraren



pertsonaiak edota gaiak konparatzeko asmoarekin. Esaterako:

- Relatos de Yásnaia Poliana : Cuentos para niños y el relato del Cáucaso / Lev Tolstói.-- Madrid, Rey Lear, 2010
- Las tres preguntas / León Tolstói.-- Madrid, Gadir, 2009
- Gizarte kritika. Gure gizartearen zentzugabekeriak azaleratzen dituzten obren irakurketa. Ondoren hausnarketa egin norbere bizimoldeaz, hobekuntzarako asmoarekin. Esaterako:
 - Los Papalagi /discursos de Tuiavii de Tiavea.-- Barcelona, RBA, 2008
- Ilustrazioa. Liburua Elena Odriozolak ilustratu duela eta, bere obraren gainbegiratua proposa liteke:
 - Beste ilustratzaileekin: Antzeko motiboak dituzten irudiak bilatu eta alderaketa egin.
 - Elenaren obraren barruan: Antzeko motiboak dituzten irudiak bilatu eta alderaketa egin.
 - Elenaren obraren eboluzioan arakatu. Esaterako liburu hauekin:
 - Agure jakagorria / Txiliku ; marrazkilaria, Elena Odriozola.-- Donostia, Elkar, 1995
 - Axa mixa zilarra / Txiliku ; marrazkiak, Elena Odriozola.-- Donostia, Elkarlanean, 2000
 - Osaba Bin Floren / Txiliku ; marrazkilaria Elena odriozola.-- Donostia, Elkar, 2004
 - Ipuinen haria / Ferida Wolff, Harriet May Savitz ; marrazkiak, Elena Odriozola.-- Donostia, Ttarttalo, 2008

Prentsako kritika

Tolstoi qoxo dastatzeko Bixente Serrano Izko / Berria, 2012-02-19

Ene erudizio eskasegiak huts egiten ez badu, oso gutxi dastatu dugu oraindik ere euskaraz Lev Tolstoi. Izan ere, ene kontsultek erraten didatenaren arabera, errusiar eta munduko narraziogile handienetako bat dugun honen alegia batzuk bertzerik ez zaigu oraingoz heldu euskarara: hots, 1985ean La Primitiva Casa Baroja argitaletxeak eskaini



zigun *Alegiak* bilduma bat, Bittor Madina itzultzaile; 1991n Ibaizabalek ekarririko *Ivan Iltxen heriotza*, Xabier Mendiguren Bereziartuk euskaraturik; 1998an *Zaldi baten historia*, Mensajero eta J.L. Egigurenen eskutik; eta orain berri, eskuartean dugun bertze alegia hau, Denonartean etxeak eta Mikel Vilches itzultzaileak eman digutena. Egonen ahal da norbait *Gerra eta bakea* edota *Ana Karenina* bezalako eleberriak euskaratzeko ahaleginetan!

Gaurko ipuin hau, *Zenbat lur behar ditu gizon batek?*, 1886an plazaratu zuen Tolstoik, eta ordurako aipaturiko bi nobela handiak bazeuden plaza eginik 1869 eta 1877tik hurrenez hurren. Bi obra horien itzal handia gorabehera, ezin erran Tolstoiren hainbat eta hainbat narrazio labur bigarren mailako produktu denik. Maisu handia izan zen genero honetan ere. James Joycek, adibidez, “inoiz idatzi den kontakizunik onena” zeritzon gure gaurko honi, atzeko azalean argialetxeak berak marketin sen landuaz gogorarazten digun bezala.

Onena edo onenatariko bat, gaurkotasun handiko parabola dugu. Gaurtik ikusirik, denboren eta lekuen gainetik hegan egiten duen narrazio lilugarri horietariko bat lortu zuen idazleak. Ezaguna da haren joera mistiko, gizaldeko, pedagogiko, bakezalea. Bai bere saiakeretan bai alegietan bai bere bizitza pribatu eta publikoan gauzatu zituen alderdi horiek. Onura eta gutizia materialak mespretxatzen zituen, aberastasun izpiritualak lehenetsi. Gorroto zion mugagabeko ustiaketa grinari, gizakion izaeraren ezaugarri horri, naturarekin loturiko bizimodu lasaiarekin egiten zuen amets eta transmititzen jakin zuen bere idazkietan. Gure gaurko fabulak bikain, sarkastiko eta natural bezain simple jorratzen du nekazari baten lur-jabetzaren egarri aseezina. Zertarako neurrigabeko jabetzak, zertarako hainbat ibilera neketsu eta auto-suntsitzaile arra bete lur gehiago lortze aldera?, horixe da narrazio honen galdera — erantzun zintzo garbia daramana baitan—, gaurko globalizazioaren moldearen krisi latzean berriro ere egin beharrekoa.

Horrela erranik, balirudike fabula moralista arrunt eta erraz baten aurrean gaudela. Ikasbide morala du, bai horixe!, baina idazle baten senak eta eskolak aparta bihur



LIBURU GAZTEA 2012-2013



dezakete istoriorik xume eta itxuraz sinpleena. Hain zuzen ere, Tolstoik egiten zekiena. Narrazio labur-laburra, plama osoko ilustrazioak eta guzti, 70 orrialde betetzen ez duena. Baina haren estilo zuzen eta soila —erran nahi baita zuzen-zuzenean bideratu nahi duela istorioa helmugara inguru-minguru guztietatik ihesean—, haren errekurtsio literarioen ekonomia, haren erritmo narratiboa geldoago hasi baina konpasez konpas gero eta gehiago azkartzen doana harik eta azkeneko erranaldiak literaturako stop adierazkorrenetariko bat plantatu arte... ezaugarri horiek egiten dute fabula moral hau harribitxi narratibo.

Eskertzekoa da liburuaren fitxa teknikoan agerian utzi izana gazteleratik abiatu dela gure itzulpena. Goxo-goxo irakurtzen da euskarapena, eta are goxoago egiten dute diseinua Elena Odriozolaren ilustrazioek, ederki egokituak narrazioaren izpiritu eta estiloari, aurretik Nordica Libros argitaletxearen ediziorako egin zituenak.

Tolstoi-pintxo bat dastatzeko parada atsegina.